



2. gehigarria

GIPUZKOAKO IKASTETXEEN FISKALITATEAN IDEIA BERRITZAILEAK, 2023/2024 IKASTURTEA

Laburpena eta [bideoa ikusteko lotura](#)

Ideia-izenburua

GIPUZKOA GARA!

A. Ideiaren LABURPENA (funtsezko ezaugarriak eta baloreak)

Lizardi Institutuko DBH 4. mailako "Etxeko Ekonomiako" ikasleekin landutako "Ekonomia eta Zergak" unitate didaktikoaren ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiak proposaturiko lehiaketan parte hartzearen erronkari ekin diote.

Aurkeztutako lana BIDEO bat da. Bertan, INFORMATIBO bat irudikatuz, fiskalitateari loturiko ekarpena egin dute (sentsibilizazio premiari erantzun, Herritarren ezagutza ezaren errealitatea egiaztatu eta zenbait proposamen egin).

Hemen duzue DRIVE euskarrian dagoen [bideoa](#)

Bideoa egin aurretik ikasleek Zergak eta Tasak landu dituzte, bakarka eta talde handian irakaslearekin batera. Deigarria egin zaizkienak jaso eta beraien iritsiez gain beste gazteen ikuspuntua jasotzeko galdetegi bat proposatu dugu. Galdetegi horretatik jasotakoekin eta ikasleen beraien ikuspuntuarekin, bideoaren gidoia osatu eta grabatzeko rolak eta eszenografia prestatu dugu. Amaitzeko grabatzeari ekin diogu. Prestatutako gidoiaren arabera grabazioa 10 minutukoa zenez eta lehiaketan 5 minutukoa onartzen zenez, grabazioaren egokitzapenari ekin diogu egindako lana ahalik eta gutxien kaltetzen ahaleginduz.

DBH4. mailako ikasleek ez zekiten ia ezer 2023ko irailean eta 2024ko apirilean sentsibilizatu, ulertu eta ongizate eredu mantentzearen alde daudela esan daiteke lanketa honi esker. Lehiaketan parte hartzeak motibatu egin ditu eta aldi berean beste era batera lan egiteko aukera eman digu.

Lanketa hau eta bideoaren zabalkuntza, baliagarria izan daiteke DBH4. mailatik Batxilergoko 2. maila arteko ikasleen sentsibilizazioa sustatzeko.